

# Debabarreneko lan munduan euskararen erabilera sustatzeko plana

• **Debabarrena:** Eibar, Elgoibar, Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko udalek hainbat ekimen batera egiten dituzte.

• Ekimen horietako bat Debabarreneko **lan munduan euskararen erabilera sustatzeko plana da.**

• Plana garatzeko Debabarreneko udalek **EMUN hizkuntza aholkularitzaren** laguntza izango dute. EMUNek euskararen erabilera normalizatzeko planak garatzen ditu enpresetan, erakundeetan, herrietan...

• Planaren **helburua** honakoa da: herri bakoitzean **hainbat enpresatan euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatzea eta inplementatzea.**

• Euskara Plana **zergatik?**

- Gizartean gero eta **euskaldun gehiago** dagoelako.
- **Bezeroak gusturago** izateko aukera ematen duelako.
- **Langileei** euskaraz egiteko aukera ematen dielako, **gogobetetze maila** handiagoa lortuz.
- Enpresari inguruan duen **gizartean hobeto txertatzeko** aukera ematen diolako.
- Enpresari **lehiakortasun irudia** ematen diolako, zerbitzu osoagoa ematen duelako.
- **Aldaketetarako gaitasuna** adierazten duelako enpresa euskara bultzatzeko gai izan denean, modernotasun irudia.
- Kanpoko merkatuetan **kalitatearen adierazgarri** izan daitekeelako, globalizazio garai hauetan enpresek **nortasun adierazgarriak** behar dituztelako, eta horietako bat euskara izan daiteke.

## EUSKARA PLANEN HELBURUA

Enpresan euskararen erabilera normalizatzea

## SUSTAPENA: HURRENGO URRATSAK

1. Eskutitza eta triptikoa enpresetara bidali.
2. Hainbat enpresarekin telefonoz harremanetan jarri.
3. Bilera eguna zehaztu.
4. Euskara planak enpresari aurkeztu.
5. Enpresei proposamen zehatza egin.
6. Euskara planak martxan jarri.

## EUSKARA PLANEN METODOLOGIA

### 1. DISEINUA

- Motibazioa, ezagutza eta erabileraren diagnostikoa.
- AMIA matrizea.
- Euskararen helburu estrategikoak.
- Euskararen Gestio Plana.

### 2. INPLEMENTAZIOA

- Euskararen gestio planen kudeaketa.
- Motibazioa eta erabilera handitzeko ekintzak.
- Euskararen formazio planak.
- Trebakuntza eta erabilera taldeak.
- Itzulpenak, lanpostuko laguntzak eta dokum. ereduak.
- Diru laguntzen kudeaketa.

### 3. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

- Euskararen gestio planen ebaluazioa eta jarraipena.

• Guztira 130 enpresa eta entitatek dute euskara plana. Besteak beste honako hauek:

**Fagor Taldea, MCC, Ulma, Euskotren, Danobat, Ideko, Soraluce, CAF, Irizar, Elay, Ikerlan, Goimek, Gureak, Danobat Taldea, ABB Niessen, Orona, LKS, Euskadiko Kutxa, Tekniker, Urkunde, Gorosabel,...**

• Eusko Jaurlaritzak eta Udalek diruz lagunduko dituzte euskara planak martxan jartzen dituzten enpresak.

Edozein argibidetarako:

- Maite-EMUN: 943711847 edo maite@emun.com
- Eibarko Euskara Zerbitzua: 943708435
- Elgoibarko Euskara Zerbitzua: 943744366
- Debako Euskara Zerbitzua: 943608045
- Mendaroko Euskara Zerbitzua: 943033290
- Mutrikuko Euskara Zerbitzua: 943603244
- Soraluzeko Euskara Zerbitzua: 943753043